


EUSKADITIK IGAROTZEN DIREN BI DONE JAKUE BIDEETAKO KULTURA ETA TURISMOA GARATZEKO ETA SUSTATZEKO PLAN ZUZENTZAILEA

AURREKARIAK

Euskadi zeharkatzen duen Done Jakue bidea, izan ere, geure lurra apostoluaren hilobira joateko zeharkatzen zuten Europako erromesen hasierako erromesaldien eraginezko legatu historikoa da. Euskal Autonomia Erkidegoa Hondarribian edo Irunen hasten diren bi bidek zeharkatzen dute. Bata kostaldetik doa (segurutik, Santiagorako biderik antzinakoena), eta bestea barrutik, Arabako bidea edo Baionakoa, eta horrek, antzinako merkataritza-bideetatik, bat egiten du ibiltari ugariak den Frantziako bide tradizionalarekin. Horietatik guztietatik, gaur egun, Europako oraingo kulturaren sustrai handikoa den esperientzia batek erakarritako bidaiari eta erromes asko doa Santiago de Compostelara; izan ere, bide horrek sustrai historikoak ditu eta, gainera, beste mota bateko bidaia egiteko aukera ematen du.

Frantziako bidearen garapenak eta ibilbide horrek belaunaldi berrietan sortu duen interesak agerian jarri du Europa osoko historia-, kultura- eta erlijio-ondaretzat jaso dugun baliabide horren garrantzia; halaber, antzina gertatu zen bezala, eratzten ari garen Europa berriko hiritarrak batzeko eta elkar ezagutzeko lotura garrantzitsua da.

Oraingo erromesek helburu eta beharrezan desberdinak dituzte, baita bidearen esperientziak bizitzeko modu desberdinak ere. Batzuk jarrera erlijiosoak dakarte, erromesen modu tradizionalan. Beste zenbaiten kasuan, berriz, bide honen zentzu sinboliko handia eta anitza nagusitzen da. Ibilbidea erronka pertsonaltzat edo kirol-erronkatzar hartzen dutenak ere badira. Horientzat guztientzat, dena den, Euskal Herriko




paisaiak inguraturiko Iparraldeko bideetako esperientzia izango da izendatzaile komuna, eta, zalantzarik gabe, aukeraz beteriko bidaia egingo dute.

Orain arteko urteetan, ondare hau baloratu duten EAEko administrazioek, erakundeek eta elkarteek, euren eskumenen arloan, bidea suspertzeko jarduketa gutxi batzuk egin dituzte; horietan, Done Jakue bideko euskal elkarten lan handia eta iraunkorra agerian gelditu da.

2004tik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendaritzak eta Turismo Sailburuordetzak lankidetzaz estua garatu dute, lan-mahai baten inguruan; horrela, bakoitza bere eskumenetan oinarrituz, ibilbide hori balioztatzeke oinarritzko ekintzak egin dituzte; esate baterako: bidea trazatzea, seinaleztatzea eta babestea, eta horren ezagupena sustatzeko (baita EAEko biztanleen artean ere) eta erromes mota guztiek erabiltzeko ekintzak garatzea. Lehenengo fase honetan hauxe egin da: Bidea trazatzea, seinaleztatzea eta babestea; erromesaren gida eta sustapeneko liburuxkak argitaratzea; Bideak estatuan eta AAEetan duen antolamenduari buruzko orientazio juridikorako txostena egitea, eta sustapeneko beste zenbait jarduera garatzea.


Amaitzeko fasean dagoen *Finkapen Etapa* onen esperientziak berretsi egin du Done Jakue bidearen garapenaren diziplina anitzeko izaera, baita Europako ibilbide honen Euskaditik igarotzen den zatiaren garapenean inplikazioa eta erantzukizuna izan behar duten erakundeen arteko koordinazioaren garrantzia ere. Bidearen garapenean, azpiegiturari lotutako alderdiak daude inplikaturik; adibidez, bide-trazatzea, seinaleztatzea, mantenamendua eta lege-babesa. Bidea erakargarri bihurtzen duten lurralde- eta ingurumen-balioak ere badaude. Kultura- eta erlijio-elementuak, esaterako, ondarea balioztatzea, kultura-balio handiko ibilbide batean. Harrerako zerbitzuei lotutako ekipamenduak, esate baterako, aterpetxeak edo beste turismo-ostatu batzuk, jatetxeak eta erromes mota guztiei arreta eskaintzeko zerbitzuak. Azkenik, eskaintzarako, informaziorako eta turismo-sustapenerako estrategiak eta programak daude.



Antolamenduaren konplexutasuna askoz ere handiagoa da EAeko Euskadiko lurralde osoa ekialdetik mendebaldera eta iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen baliabide batean; hain zuzen ere, kostaldeko bideak 215 km-ko trazatua dauka, eta barrukoak 250 km-koa. 85 udalerrri eta EAeko hiru hiriburuak zeharkatzen ditu. Bidearen garapenean, kultura eta turismoa ez ezik, erakunde publiko eta pribatu askoren interesak eta eskumenak ere lehentasunezkoak dira, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Ingurumen Sailak besteak beste, Bidea balioztatzeko eta horri jarraipena emateko; horri dagokionez, honako hauek ere aipa daitezke: Aldundiak eta Udalak, Bidearen Lagun Elkartek, Eliza Katolikoa eta ostatuko turismo-sektoreak, jatetxeak eta beste zerbitzu turistiko batzuk. EAeko elkarte horiei, berriz, estatu mailakoak gehitu behar zaizkie, esaterako, Done Jakueko Kontseilua edo Bidearen Gerentzia (AAEE guztiek eta Turespaña deritzonak finantzaturiko elkarteak). EAeko bidea, halaber, erkidego mugakideekin koordinatu behar da; horien artean, Ipar Euskal Herria eta Akitania sartzen dira.

Bestalde, kontuan hartuta 2007an 6.000 erromes inguru Done Jakue Bidearen euskal elkarteek zaindutako aterpetxetan ostatua hartu zutela (urterik urtera kopurua bikoiztu, azken 5 urteotan) eta 2010eko Done Jakue urtean erromes kopurua handiagoa izango dela, erromes horiei guztiei harrera-zerbitzu egokia eman behar zaie, euren itxaropenak ez zapuzteko. Azken batean, alde zuzeneko azterketa hau egin ostean ondorioztaturikoaren arabera, beharrezkoa da Bidearekin zerikusia duten erakunde publikoen nahiz pribatuen eta herri-administrazioen inplikazioa, koordinazioa eta jarduketara, garapen egokia bermatu ahal izateko.

LEHIAKETAREN HELBURUA



Horrenbestez, **Euskaditik igarotzen diren Done Jakue bideen Plan Zuzentzailea** egitea proposatu da. Plan horrek hurrengo urteotarako esku-hartze estrategia globala finkatuko du. Hain zuzen ere, jarraibideak ezarri, Done Jakue bidearen balizko Erakunde Batzordea zehaztu (koordinazio-organotzat) eta kudeaketa-unitatea diseinatu behar du, ezarritako estrategia garatzeko eta betearazteko. Planak epe laburreko (2010era arte), ertaineko eta luzeko jarduketa-lehentasanak ezarriko ditu. Epe laburra ondo zehaztuta egongo dira, proiektuei, arduradunei, kostuei eta finantziazioari dagokionez, kudeaketa-unitateak martxan jarri ahal izateko.


Plan Zuzentzaile horrek, egiten duen azterketan, aintzat hartu beharko ditu Bidearen mantenamendu-egoera, aterpetxeetako harrera-sistema, turismo-bulegoak eta interpretazio-zentroak, eta inplikaturiko erakundeen antolamendua eta programak.

Plan Zuzentzaileak azterketa, diagnostika eta lerro estrategikoen definizioan, honako jarduketa-arlo hauek hartu beharko ditu kontuan:

- ❖ Azpiegiturak eta ekipamendua
 - Trazatua, seinaleztapena (segurtasuna, bizikletak, automobilak), mantenamendua.
 - Ostatua. Aterpetxeak eta turismo-ostatuak.
 - Turismo-bulegoak eta interpretazio-zentroak.

- ❖ Ondare-baliabideak
 - Done Jakue bideari lotutako ondare-elementuak.
 - Bidea finkatzen duten kultura-elementuak suspertzea.
 - Inguru naturala suspertzea eta paisaiaren zainketa.

- ❖ Eskariaren eta sustapenaren azterketa
 - Eskariaren ezaugarriak.



- Sustapeneko materiala eta webak.
- Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko sustapen-estrategiak.


- ❖ Erakundeen arteko koordinazioa eta kudeaketa
 - Oraingo egoera
 - Euskadin eta Estatuarekin.
 - Finantziario-sistemak.
 - Araudiak.

- ❖ Koordinazio eta kudeaketarako organoen definizioa
 - Publikoa eta pribatua
 - Done Jakue Bidearen dinamizazio kulturalerako ekintzak.

- ❖ Bideari loturiko Azterlan eta estatistika arlo baten definizioa
 - Azterlan eta proiektuen bilketa eta eguneraketa.
 - Estatu eta europar mailan pareko arloekin koordinazioa

- ❖ Koordinazio- eta kudeaketa-organoen zehaztapena
 - Done Jakue bideen batzordea – Planaren erakunde kudeatzailea
 - Izaera.
 - Osaketa.
 - Funtzioak eta eskumenak.
 - Funtzionamenduaren aurrekontua eta baliabideak.
 - Jarduketa-ildoak.

- ❖ Ekintza plana
 - Epe labur (Xacobeo 2010), ertain eta luzean



Plan Zuzentzailearen metodologia orokorrean partaidetza-prozedurak erabiliko dira etengabe. Ondorio orokorretan, ahaztu barik, konparazioak egingo dira Frantziako biderearen esperientziarekin eta ekarpenekin.

Plan Zuzentzaile honek, gainera, beste lan gehigarri eta osagarri batzuek kontuan hartu beharreko irizpideak adieraziko ditu; lanok, berriz, orain lehiaketara atera den plan honetan abiapuntuko jarrerak finkatu ondoren egingo dira; esate baterako, markaren irudia, irudi korporatiboaren eskuliburuak, gidaliburuaren diseinua, argitalpen espezializatuak edo liburuxkak, lege-ereduak, etab.

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

BASQUETOUR agentziak lanen zuzeneko ikuskapen eta zaintza iraunkorra egingo du. Horretarako, adjudikaziodunak laneko edozein prozesuren edo faseren azterketa egingo du. Adjudikaziodunak ikerketaren jarraipena egiteko bilera-egutegia finkatu beharko du, non BASQUETOUR-ek, lanaren liderrak, zehazturiko erakundeetako agenteek parte hartuko duten.


BASQUETOUR agentziak adjudikaziodunari laguntza emango dio, bere esku dagoen informazio guztia emanda; gainera, horrekin lankidetzan jardungo du, berak ez dituen informazio-iturriak lortu ahal izateko.

Lanen zuzendaritza BASQUETOUR agentziako ordezkari batek egingo du, eta horrek koordinatzailetzat eta ikuskatzailetzat jardungo du. Adjudikaturiko proposamenean egindako edozein aldaketak, gainera, BASQUETOUR agentziaren adostasuna izan behar du, eta horrek lanetako jarraibideetan aldaketak adierazi ahal izango ditu edozein unetan.

LANAREN KONFIDENTZIALITASUNA ETA JABETZA

Txostenak eta horietan jasotako datu guztiak, baita horien ondorioz sortzen direnak ere, BASQUETOURen jabetza soilekoak izango dira.

Era berean, konfidentzialak izango dira, eta ezin izango dira argitaratu, ez oso-osorik ez zatika, eta beste edozein motan ere ezin izango dira erabili, BASQUETOUR agentziak idatziz emandako berariazko eta aurretiazko baimenik gabe.



Adjudikaziodunak ezin izango du inoiz ere proiektuei buruzko adierazpen publikorik egin, baldin eta BASQUETOUREn berariazko eta aurretiazko baimenik ez badu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Adjudikaziorako irizpideak, bakoitzari buruzko puntuazioarekin, ondoren adierazitakoak dira:

- | | |
|----------------------|----|
| 1. Memoria teknikoa. | 40 |
| 2. Talde teknikoa | 30 |
| 3. Prezioa | 30 |

AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 2008ko irailaren 12an 12:00etan bukatzen da.

ZENBATESPEN EKONOMIKOA

Ikerketaren kostua ez da 60.000,00 eurotik (BEZ kanpo) gorakoa izango. Ordainketak, %30a kontratua sinatzerakoan, %40a azterketa entregatzerakoan eta beste %30a lana bukatzerakoan.

EGITEKO EPEA

Egiteko epea 6 hilabetetan amaitzen da, kontratua adjudikatzen denetik zenbatzen hasita.

